

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2011ko irailaren 30a
303. zenbakia. 23. urtea



Zaldiz erromes bizikleta lagun

Donejakue bidea egin du Jon Ander Maizak zaldi gainean, *Katxiña* eta *Lizargate* laguntzaile zituela, bata bizikletarekin eta bestea auto eta atoiarekin

05

Herriko kontuak
Esperientzia Eskola

09

Kirol elkarrizketa
Agustin Zaldua

19

Adarretatik helduta
Marisa Arruabarrena

25

Herritarra
Imanol Manterola

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |
FATXADEN ERABERRITZEAK |
ISOBAILUEN PROIEKTUAK |
GREMIO KOORDINAKUNTZA |
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE 8, S. BULEDDA, ZARAUTZ
BORJA ABIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



Restaurante **sega** Restaurante

943 83 22 29

Santxerrika

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 84 37 / Fax: 943 89 48 48
e-mail: hantopid@hantopid.net

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Euz. Ondo, 10 behe-oina
Telefonoa: 943 13 47 90
fax: 943 61 67 52
e-mail: zaldua.dolores.pa@allianz.es

Zaragueta
Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aak@ozkuntza.net

ASADOR NIXARIO

20000 Nizkorri Kalea, 2
26.161 20000 NIZKORRI ORDO

Portu
BRRETEGIA

Santa Etxeko Auzoa, 29
943 69 34 04
20009 AIA-ORIO

*Kirolak, kirolerako abarrik,
Arrieta erabat erakutsi zion*

tel/fax: 943 89 00 69
Bilbo kalea 4 20100 ZARAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU, ERAKUSKETA

ZABALIN! PROBATU EZAZU!

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Ateetan automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arantzale, 31 20810 ORIO

Orioko
Ogia

ORIOGI

CPJL OKINOEGIA
frantzis ondoan
Tfnoa: 943 83 01 89

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf/fax: 943 13 80 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arantzale kalea, 65
20810 Orio (Gipuzkoa)

Beste behin ere argia piztuta egin duzu lo

1

Bat hobeto bizi al da dirudun, aberastuta? Hiru kartila ireki eta hirurak puztuta. Denda bat zegoen salgai harekin nahi nun disfruta ta orain ukitu nahi det aberastasun punta. Azken hilabete hontan hiru aldiz lapurtuta, ilundu xamar nabil ni ia ezin berpiztuta. Nere dendako argia bakarrik dago piztuta.

2

Aberats izan nahi nuen ez nago ziur zergatik. Aberats izan nahi nuen, hori seguru badakit. Ta ia dena egin dut nik aberasteagatik. Badituzt pila galantak, hasi nintzena hutsetik, baina lapurretak datoz aurretik eta ertzetik. Lo dendan egin behar det, argia piztu ohi det nik; baina, halere, gauero mamuak etortzen zaizkit.

3

Eta ze arrazoi daukat gaur'e berdin egoteko? Erropa denda honetan generoa bada lepo. Baina horren sentitzen naiz diru nahian dirupeko, zerbait baleuka bezela xoxak neri emateko. Zurrumbiloan sartu naiz agian nere kalteko, baina argia itzaltzerik ez dezute ba usteko. Pizten beharren itzaltzen ikasi banu hobeto.

303

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Marisa Arruabarrena,
Iñaki Iturain
eta Xabier Sukia

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

Banatzzaileak

Cristina Burlacu
eta Iban Recio (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.050 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



Gipuzkoako txapelketan, Azkoitiko final zortzirenean, kartzelako ariketan kantatutako bertsoak. KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
(695 78 07 20) edo
publizitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Udako erasoak

Uda bukatu da eta udan gertatutakoak atzean geratu dira. Haietako batzuk nahiago berriro sekula ez gertatzea. Guri nekez ahaztuko zaizkigu, eta uste dugu onena dela jendeak jakitea. Gure asmoa ez da inor zigortzea, berriro gerta ez daitezen neurriak hartzea baizik.

Aurtengo udan eraso egin digute etxean. Gaztetxo batzuek, burua txanoarekin estalia zutela, gure etxeko balkoia- ren eta leihoen kontra kaletik limoiak botatzen jardun ziren. Zaratarekin esnatuta, balkoira ateratzen ginenean, ihes egiten zuten. Lau aldiz sufritu ditugu erasoak.

Festak direnean-eta, errio ertzeko farolak puskatzen dituzte. Gure ustez, eraso horien atzean jende bera dabil eta iruditzen zaigu zer bait egin beharko litzatekeela. Benetan nahi izanez gero, ez da horren zaila egileengana iristea. Gaiaz hitz egin beharra dago, gazte horiek kon- turatu behar dute egiten dutena oso larria dela eta herriak ez duela onartzen.

Udaletxean salatu dugu. Orain Orioko gizarteari esan nahi diogu. Haien guraso askok ez dute ezta susmatu ere egingo; beste batzuek, agian, bai. Etxean eta eskoletan eraso horien zentzugabekeriaz hitz egin beharra dago, eta Udalak egun arriskutsuetan -festak eta...- zaintza pixka bat jarri beharko luke.

Garaiz ez badira geratzen, gauza hauek okerrera egiten dute eta ondorioak oso larriak izan litezke. Hobe dugu gogoeta egin, eta neurriak orain hartzea.

■ **Erasoa jasan duen herritar bat.**

Eskerrik asko guztioi!

Denboraldi luze bezain gogor hau bukatu denez, idatzi hau egin nahi izan dugu Orioko arraunlariok, denboraldi osoan eta, batik bat, gehien behar genuenean, denboraldi amaieran, oriotar guztiek eta oriotar ez diren oriozale guztiek eman dizkiguten animoak eta laguntza esker- tzeke.

Historian Orioko trainerua maila go- renean egon da ia beti, eta asko ziren pentsatzen zutenak oriozaleak gaizki ohituta zeudela, irabazten bakarrik ze- kitela. Aurten, ordea, historiako denbo- raldirik kaxkarrena egin dugu, Kontxa- ko estropadetan ez sailkatzeaz gain, TKE ligan azkenak izan baikara. Ez zuen inork espero, ezta guk ere, baina halaxe da eta, momentu zail horietan, egunero- egunero jaso ditugu animoak.

Izugarria izan da sufritzen ari ginena kontuan hartuta, piztu zaigun poza, za-

leak eta oriotar guztiak gurekin zeudela jakitean; horrek eman digu indarra irai- leko azken estropadetan behar bezala aritzeko.

Horregatik guztiagatik eta beste hain- bat momentugatik, eskerrak ematea baino ezin dugu egin kolore horia maite dutenei eta, hemendik aurrera ere, zai- lena pasa eta gero, kolore horia maita- tzen jarraituko dutenei, KAE-1 ligara jaisten bagara ere, ahal dugun guztia egingo dugulako Orioko trainerua ber- rriz gorenera iristeko eta gure zaleei le- henbailehen poz hori emateko.

Besterik gabe, mila esker guztioi eta, orain inoiz baino ozenago... aupa Orio!

■ **Orioko arraunlariak.**

MMEren aurka, elikadura subiranotasunaren alde

2003ko irailaren 10ean Lee Kiung Hae baserriar xumeak bere buruaz beste egin zuen Munduko Merkataritza Era- kundea, Cancúnen -Mexiko- egin zuen bilkuraren aurrean protesta egite- ko. Modu horretan, erakunde horrek bere lurraldean zeraman politika salatu nahi izan zuen. Orduz geroztik, egun hori MMEren aurkako nazioarteko egun bilakatu da.

Lee Kiung Haek egindako salaketa- ekintza bortitz eta etsipenezko hura harrigarria da gure ikuspegi europar eta kaletarrarentzat, baina ez zen lehenen- goa izan, ezta azkena izango ere. Gainera, milaka dira kapitalismoaren aurkako borrokan bizia galdu duten eta oraindik ere galtzen ari diren baserriar- rarak, politika kapitalisten erruz zuzene- an hiltzen diren milioika baserriarrez gainera.

Horietaz oroitzean, atzera begiratu eta 15 urteotako esperientzia duen gi- zarte mugimenduaren errealitatea ikus- ten dugu, eta gaur egun jasaten dugun eraso neoliberalaren aurrean tinko eus- ten eta borroka zuzena egiten jarraitzen dugu. Baita sistema kapitalistak eragi- ten dituen hondamendiei aurre egiten ere. Gosea pasatzera, beren jarduera eta kultura desagerraraztera, eta ingurume- na suntsitzera behartzen baititu sistema kapitalistak mundu osoko nekazari- he- rrialdeak. MMEren laguntzaz, Banku Mundialak eta Nazioarteko Diru Fun- tsak ezartzen dituzten politiken aurrean urte askotako borroka eta erresistentzia egin da.

Munduko merkataritza finantza-bo- tereen eta multinazionalen interesen arabera kontrolatzen ditu MMEk, eta familia- nekazaritza desagerraraztearen

erantzule ere bada. Nekazaritza modu hori babesten duten nekazari herrialde edota herrialde indigenen desagerraraz- tearena ere bai. MMEk *dumpinga* eta es- portaziorako diru-laguntzak babesten ditu Lehen Munduan. Bestalde, euren nekazaritza bizirauteko gai diren he- rrialdeetan merkataritza-harreman bi- degabeak ezarri eta inportaziora derri- gortzen ditu. Are gehiago, nekazaritza propioa sustatzen duten elkarte publi- koen pribatizazioa, azpiegitura erral- doien eraikuntza, hango ekonomiaren liberalizazioa, oligopolioen hedapena, ondasun naturalen pribatizazioa... hori dena babesten du. Ez hori bakarrik, bio- pirateria eta transgenikoak ere babesten baititu, eta badakigu transgenikoek bio- dibertsitatea hondatzen dutela, baita antzinatik jaso dugun nekazaritzako on- dare genetikoa eta herrialdeen osasuna ere. Erakunde hori tokiko eta familia- nekazaritzaren suntsitzailea da, he- rrirentzako janari osasuntsua ekoiztea bultzatu beharrean bio-erregaien ekoiz- pena eta beste ekoizpen-industrial bat- zuk sustatzen dituelako.

Egoera horren aurrean sortu da elika- dura subiranotasunaren aldeko mugimendua, MMEren sorreraren aurrean nazioarteko beste borroka sortuz, urtez urte indartuz doan politika neoliberalen aurka.

Gai hori jorratuko da, beste batzuen artean, Usurbilen irailaren 30etik urria- ren 2ra egingo diren Auzolan Topakete- tan. Elikadura subiranotasunaren alde egiteko interesa dutenak topaketetan antolatu dugun batzar irekian parte har- tzeraz gonbidatzen dugu. Informazio gehiago eta izen-ematea, www.auzolan.info atarian. ■ **Auzolan Institutua.**

Bruño ahizpei esker ona

Azken KARKARAN irakurri berri ditugun Blanca eta Maribel Bruñoren hitzek asko hunkitu gaituzte.

Bere garaian erakutsi genizuen hur- biltasun xume hura ondo merezita- koa duzue, sententzia erabat injustuen au- rrean ez baitzitzagun besterik geldi- tzen, hurbiltasuna eta laguntasuna adie- raztea, alegia.

Nahikoa sufritutakoak zarete lehena- go ere, ETAren mehatxuekin, orain, gai- netik, espainiar justiziaren injustiziak jasateko.

Eskerrak berriz ere bioi eta animo asko bene-benetan amesgaizto hori le- henbailehen amaitzeko. ■ **Igor Iturain eta Jon Redondo.**



Ikastolako eraikin berrian izango dira eskolak urriaren 24an hasita. ARRITXU SAN SEBASTIAN

Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik dago urriaren 14ra arte

Urritik ekainera bitartean, astelehenero izango dira eskolak eta, azterketarik egingo ez badute ere, ikastaroa bukatutakoan, guztiek jasoko dute diploma bana eskolan ibili izana egiaztatzeko.

Hau eta gaztetxoekin diote ikasturteari eta 50 urtetik gorakoak, berriz, urriari hasiko dira Esperientzia Eskolan.

Ikasturtearen aurkezpena urriaren 17an egingo dute, baina 24an hasiko dira eskolak eta, ekainera bitartean, astelehenero elkartuko dira Ikastolako eraikin berrian, 14:30etik 16:30era bitartean. Kultura eta hezkuntza uztartuz, gizartean emankortasunez eragiteko aukera izango dute ikasleek. Izena eman nahi dutenek urriaren 14ra bitarteko epea izango dute, 943 22 41 43/46 telefono zenbakietara Aitziber Indarti deituta. NANaren fotokopia, nortasun agirikoaren tamainako argazkia, izena emateko inprimakia eta 50 euroko matrikula ordaindu izanaren agiria aurkeztu behar dituzte, denak eskolako lehen egunean.

Askorentzat ezezaguna

Orain arte Orioko taldeko ikasleen batez besteko adina 60 eta 65 urte artekoa izan da. *Iaz 33 ikasle izan ziren, baina aurretik*

horietako batzuek ez dute izena eman. Gehienak etxekoandreak izateaz gain, amonak ere badira, eta amonek bilobak zaintzen dituzte askotan, beraz, ezin dute eskolara etorri; badira osasun arazoengatik etorriko ez direnak ere, azaldu du Esperientzia Eskolako koordinatzaile Arritxu San Sebastianek. Hala ere, aurretik bi ikasle berrik eman dute jadanik izena eta Eskola bertatik bertara ezagutzeko gonbita egin nahi die herritarrei koordinatzaileak. Jendeak ez daki zer den Esperientzia Eskola, zein joaten den eta badirudi aurkituko dutenaren beldur direla, dio San Sebastianek. Egunen batean etorri eta ikusi behar lukete zer egiten dugun. Azterketarik ez dugu egiten eta parte hartzea ere librea da; hau da, aukera dago irakasleari entzun eta isilik egoteko, zein, gaia interesatuz gero, hitz egiteko.

Ikasleetariko batzuek ez zuten ikasteko aukerarik izan bere garaian eta, orain, gai hauek gustuko dituztelako, Esperientzia Eskolara joaten dira. Arritxu

San Sebastianen esanetan, urte hauetan, ikasle talde bat sortu da, eta ikaskide ez ezik aisialdiko lagun ere badira; giro polita sortu da beren artean eta hori da bereziki estimatzen dutena.

Gai berriak

Bada urtetik urtera ikasketak egin dituenik, beraz, edukiak ez errepikatzen saiatzen dira arduradunak. *Aurtengo irakasle eta ikasgai batzuk berriak izango dira, eta beti saiatzen gara edukiak guztiek ulertzeko eran ematen. Besteak beste, couching-a, komunikazio gaitasuna, giza harremanak... landuko ditugu. Literatura, bioetika eta horrelakoak ematen ditugu, beharrezkoak direla uste dugulako. Baina orain, batik bat, alde humanistikoa lantzen dugu, azaldu du Arritxu San Sebastianek. Ikasleek zer ikasi nahi duten jakiteko ikasturtea bukatu ahala galdeketa egiten diete eta horren arabera antolatzen dute hurrengoa.*

Zahartze aktiboaren bidez bizi kalitatea hobetzea, pertsonen eta belaunaldien arteko harremana eta parte hartzea indartzea, eta ikasleen kultura, hezkuntza eta informazio aukera sustatzea dira, Esperientzia Eskolaren helburuak.



Aspaldi da Orion talderik ez dela ausartu diskoa kaleratzen Giranicen moduan. KARKARA

Giranice taldeak lehen diskoa kaleratu du

Talde oriotarrak lehen lana argitaratzeaz gain, *Bilbo Hiria* musika lehiaketa famatuan hartu zuen parte, irailaren 22an, Bilborock aretoan, eta erabakiaren zain daude.

Giranice taldeak lehen lana kaleratu berri du. Diskoak taldearen izen bera darma eta zehazteko zaila den estiloan dator sei kantarekin.

Dena den, disko fisikoaz gain, sarean digitalean ere zintzilikatu dute oriotarrek. Imanol Arrutik jotzen du bateria, Joseba Britek eta Iñaki Gurrutxagak gitarrak, Andoni Lertxundik biolina eta Eñaut Martik baxua. Dena dela, beste instrumentu batzuk ere tartekatzen dituzte kantaren arabera; baita, koruarena eginez, batera kantatu ere.

Lanak 6 kanta baino ez dituen arren, iraupen luzeak da, kantuak luzeak direlako.

Internetetik eraitsi nahi duenak, *giranice.bandcamp.com* helbidean sartuta nahiko du.

Bilbo Hiria lehiaketa

Diskoa kaleratu zuten egun berean, *Bilbo Hiria* lehiaketan hartu zuten parte. Lehiaketa horretan Euskal Herri-

kanpoko taldeek ere jotzen dute. Hainbat multzotan banatzen dira, musika estiloaren arabera, eta ondoen aritzen direnek, estiloko finala jokatzen dute.

Sari handiak ematen dituzte lehiaketa horretan eta, nahiz eta musika komertzialetik urrun egon, musika-kritikarien begikoa da. Kontzertua eman eta gero, sentsazio oso onak izan zituzten oriotarrek, eta finalerako txartela eskuratzekeo esperantza handiak dituzte.

Internet bidez kontzertua zuzenean eman zuten irailaren 22an, baina orduan entzun ezin izan zutenek sarean dute ikusteko, Giranicek duen *Facebook*eko orrialdean.

Diskoa sarean jarri eta kontzertua eman ostean, Japoniako blog batean eta Errusiako beste web batean taldeari buruz jardun zuten eta bigarren honetan kritika oso positiboak jaso dituzte. Finalerako txartela eskuratzen badute, azaroako azken astean lehiatuko dira berriz oriotarrak eszenatokian.

LABUR

Justizia

Itxaso Legorbururen epaiketa

Irailaren 23an epaitu zuten, Parisen, Itxaso Legorburu Orion bizi zen gasteiztarra. Bost urteko kartzela zigorra jarri dio epaileak, honakoa leporatuta: terrorismo asmoak dituen gaizkile erakunde bateko kide izatea, arma eta lehergailuak legez kanpo edukitzea, auto-matrikula faltsuak edukitzea eta lapurr eta egin izana ezkutatzea.

Horretaz gain, irailaren 23an bertan, Bilbon, Kukutza III gaztetxea eraistearen aurkako manifestaldian, beste oriotar bat, Aratz Madariaga, atxilotu zuten. Gaua Erandioko komisaldegian eman ostean, larunbatean epailaren aurretik pasa eta karguekin aske geratu zen. Desordena publikoa, autoritateari erresistentzia eta autoritatearen aurkako atentatua leporatzen dizkiote gazte oriotarri. Atxilotuek tratatu txarrak, irainak eta kolpeak jasan zituztela adierazi zuen gazteak aske geratu zenean.

Bertsolaritza

Gurrutxagak aurrera

Gipuzkoako txapelketan dagoeneko 4 saio egin dira eta hiru oriotarrek jardun dute kantari. Irailaren 18an Azkoitiko Baztar txon kantatu zuten Ibai Esoainek eta Xabier Sukiak. Puntuazio baxua izan zen saioan eta, horrek eraginda, ez zituzten puntu asko pilatu bi oriotarrek. Saioan bigarren izan zen Xabier Sukia, 450,5 punturekin, eta Ibai Esoain hirugarren, 447rekin. Beste saioetan gertatzen denaren zain daude bi horiek. Iñaki Gurrutxagak Eibarren izan zuen saioa irailaren 24an, baina puntutan gora joan zen eta nahiz eta bigarren izan 495,5 puntu pilatu zituen. Gauzak horrela, puntuazioz pasatzen diren arren lehenengo dagoena, momentuz, Gurrutxaga da eta, kantatzeko geratzen direnak hurrengo faserako dauden lekuak baino gutxiago direnez, seguru da final laurdenetan. Urriaren 1ean Elgoibarren kantatuko du Egoitz Eizagirrek, Oier Aizpurua, Mikel Arrillaga, Unai Gaztelumendi, Joxe Munduate eta Jokin Urangarekin.

Dantza

Euskal dantzen ikastaroa

Talai-Mendik euskal dantzen ikastaroa antolatu du, urriaren 5ean hasita, gaueko 21:00etan, eta 18 urtetik gorakoentzat. Eskolak Kosta Tailerrean



Azokan herriko nekazariak eta artisauak egongo dira larunbatean. KARKARA

Goiko Kaleko azoka Urdaire kalera zabalduko dute festetan

Ostiralean, urriaren 7an hasi eta igandera bitartean festa giroa izango da Goiko Kalen. Antzerkia, musika, bertsoak, azoka, merienda, bazkari eta lehiaketa, ekitaldi mordoa antolatu dituzte astebururako.

Goiko Kale biziberritzeko eta alde zaharrek berarekin dituen altxorrek jendeari gerturatzeko asmoz orain dela zazpi urte hasi ziren berriz ere urriko bigarren astebururako festak antolatzen eta aurten ere iritsi da Goiko Kaleko jaien txanda.

Aurten berrikuntza nabarmenik ez da izango antolatzailen esanetan, baina larunbateko azokan mahai gehiago jarriko dituztela eta azoka Urdaire kalera zabalduko dutela aurreratu dute. Herriko nekazariak eta artisauak egongo dira eta baita pintxo gozo zein gaziak ere.

Festak, hala ere, ostiralean abiatuko dira. Gazttxoenentzat txotxongiloak, buruhandiak eta trikitilariak izango dira eta festetako txupinazoaren ondoren, bingoak eta musak hartuko dute tokia. Antolatzailerek diotenez, bingoko dirua festak indartzeko erabiliko dute. Ekitaldi gehiago eta pisutsuagoak antolatu dituzte eta horien gastuei aurre egiteko eta aurrerantzekoak antolatzeko izango da dirua. Gauean Aitor Arregi *Ximelek* bakarriketa eskainiko du Iparragirre familiaren lokalean jarritako tabernan.

Larunbat goizean azoka izango da eskusoinu jotzaile errumaniarrak girotuta. Urdaire kalera zabalduko dute azoka; izan ere, festetako ekitaldi guztiak ez dituzte Pilliku plazan bildu nahi. Beraz, ostiraleko txotxongiloak ere zimitorioan izango dira eta kronoigoera bizikleta gainean zimitoriotik Lizargatera. Haurren kronoigoera, zinta karrera, Ibai Esoain eta Hodei Unzueta *Bikokote* antzez-lana, merienda eta toka larunbat arratsaldean izango dira.

Ekitaldi gehiago eta pisutsuagoak antolatu dituzte eta horri aurre egiteko eta aurrerantzekoak antolatzeko izango da dirua

Gauean bertso saio berezia izango da Goiko Kaleko tabernan eta antolatzailerek jakinarazi dute ogitartekoak ere egongo direla.

Igandean bazkaria izango da Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldeak girotuta eta txartelak 12 eurotan erosi ahal izango dira tabernan.

Antolatzailerek herritarrek gonbidatu nahi dituzte Goiko Kalera: *Saiatzen gara urtetik urtera festa txukunagoak antolatzen eta, gainontzean Goiko Kalen ezer gutxi egoten bada ere, urtean behin behintzat jendea hara gerturatzeko.*

EGITARAUA

Urriak 7, ostirala

19:00 Txotxongiloak, zimitorioan
19:30 Buruhandiak eta trikitilariak
20:00 Txupinazoa
22:00 Bingoa
22:30 Musa
23:30 Bakarriketa

Urriak 8, larunbata

10:00-14:30 Artisau eta nekazari azoka
11:00-14:00 Eskusoinu jotzaile errumaniarra azoka girotzen
16:30 Haurren kronoigoera (10-14 urte)
Jarraian, Zinta karrera
18:00 *Bikokote* antzez-lana, Ttinbili Ttanbala taldearena
Jarraian, Merienda
Ondoren, Toka
22:30 Bertso saio berezia

Urriak 9, igandea

11:00 Txistulariak
12:00 Tortilla lehiaketako tortillak jasko dituzte
13:00 Benta Zaharreko Mutiko Alaiak
13:30 Boletoen zozketa
14:30 Bazkaria

Kanporaketan txukun ibilita, epaiaren zain dago Orio

Emitza onak eskuratu zituen kanporaketa estropadetan, eta badaezpadako sailkapenean bigarren izan zen. Bermeon irabazi egin zuen eta Portugaleten etxeko trainerua izan zuen aurretik.



Ramon Alkain, Joxe Kutz Exposito eta Luis Jabier Amenabarrek ez dute elkartean jarraituko. KARKARA

Arraun denboraldia bukatu da uretan, baina lehorrean nahikoa saltsa izango da hemendik aurrera ere. Urdaibairen auziko epaia ezagutzen denean jakingo dugu Orio eta Camargo datorren urtean TKE ligan izango diren ala ez.

Bermeon, hilaren 17an jokaturako estropadan, Orio izan zen nagusi, bigarren izan zen Portugalete baino 5 segundo aurretik helmugaratuta. Baina, etxeko estropadan, Portugaletek 6 segundo atera zizkion Oriori; horrela, sailkapen ez-ofizialean Orio 2. geratu zen.

Hori nahikoa ez eta, hilaren 23an, Orioko arraun elkartek ezohiko batzar orokorra egin zuen Ikastolako aretoan.

Batzar orokorra

Batzar orokorra egin zuten Orio Arraunketa Elkarteko bazkideek. 417 bazkide izan ziren bertan eta KARKARAK ezin izan zuen batzarra zuzenean jarraitu, bileran egotea galarazi zitzaizkion.

Zuzendaritza batzordekoek karguak bazkideen esku jarri zituzten. Bozketan, 181ek batzordeak jarraitzea hautatu zuten, 210ek kargutik kentzearen alde egin zuten, eta 14 boto txuri eta 2 baliogabe izan ziren. 10 abstenitu egin ziren.

Gauzak horrela, 2012-2015 urteetarako batzordea aukeratzeko hauteskundeak deitu dituzte. Urriaren 21era arte hautagaitzak aurkezteko aukera dago. Urriaren 26an zerrendak kaleratuko dira eta bakarra balego, hura izango litzateke irabazle. Bestela, azaroaren 5ean, larunbata, proposatu dute hauteskundeak egiteko egun bezela. Kontu segururik ez da oraindik, baina hautagaitza bat baino gehiago omen dago.

LABUR

Sofbola eta arrauna

OBBri eta De Antari ongi etorria

Irailaren 24an, eguerdiko 12:30ean, ongi etorria egin zieten Orioko Udaleko ordezkariak Edorta De Anta arraunlariari eta OBB taldeko neskei. De Anta, aurrekoan aipatu bezala, 6. izan zen arraunketa egokituko munduko txapelketan. OBBko neskek, bestalde, udan jokaturako Europako txapelketan 3. izan ziren Bulgariako Dupnitsa herrian.

Surfa

Partehartze handia eta giro ona

Urtero bezala, irailean antolatu du Surf Taldeak herriko txapelketa. Bi asteburutan jokatu behar izan dute itsasoan baldintzen ondorioz eta 60 parte hartzaile izan dira guztira. Open mailan, Xanti Mujika izan da irabazle, Jon Makazaga, Iker Garmendia eta Erik Custodioren aurretik. Nesketan, Sonia Ziani izan da onena Ruth Aramendi eta Jessica Moralesen aurretik. *Longoarekin* Luis Etxeberriak irabazi du eta Fermin Lazkano eta Jose Ignacio Albeniz izan dira ohorezko postuetan. Antolatzaileak

gustura geratu dira aurtien ere.

Judoa

Oiana Blancok hirugarren urrea

Olinpiar Jokoen izateko bi idea ongi egiten ari da, momentuz, Oiana Blanco. Udan Munduko Txapelketan emaitza onik lortu ez bazuen ere, Munduko Kopako hirugarren proba irabazi zuen irailaren 26an, Kazakhstango Almati hirian, 48 kilo azpiko kategorian. Horrekin, urteko hirugarren urrezko domina irabazi du Oianak ekainean Madrilen eta beranduxeago Miamin lortutakoen atzetik. Lortutako emaitzak ikusita,



KARKARA

“Kirola, informatika eta aisialdia uztartu behar dira gazteentzat”

Agustin Zaldua

Think Different 2012-2016 proiektuko burua

Endaia plaza inguruan dagoen lokala ezagun egin da azkenaldian, erakuslehoan dituen gauzak direla eta. Lokala horrela jartzearen arduradunarekin jardun dugu hizketan, Agustin Zalduarekin, eta bere proiektuaz hitz egin digu.

IKER GURRUTXAGA

Think Different 2012-2016, nondik sortu da ideia?

2016an Donostia Europako kulturaren hiriburua izango da eta denak hara begira egongo dira; hortaz, Orio ondoan

izanda, gure herria kirolean erreferente bihurtzea da helburua.

Logotipoa izurde bat da. Itsasontziaren aurretik joaten baita beti izurdea, eta helmuga bat jarritz gero, lehenengo izango litzateke iristen. Guk ere horrela behar genuke izan. Eta *Think Different*,

bada, ingelesa beharrezkoa delako gaur egungo gizartean; horretaz gain, bere esanahia *ezberdin pentsatu* da, eta hori ere behar dugu. Orain arte ez bezala pentsatuz, ea nora iristen garen.

Lokalaren ideia nondik dator?

Bada, lokalak gaur egungo gazteriaren egunerokoa dira. Eta guk hortik atera behar ditugu, horregatik lokal bat hartzearen ideia. Kanean egiten dira gauzak eta kanean bilakatuko dira heldu gure gazteak ere. Kirola egin behar dute, informatika eta aisialdiarekin uztartuz. Horretarako, kirola egitea merketu behar zaie batetik. Informatikan *Apple* enpresaren sistemaren aldekoa naiz, nire ustez kontaminazio gutxi baitauka, eta hori eskuragarri jarri behar zaie. Ingelesekin jakitea ere garrantzitsua da gazteentzat, joaten diren tokian beren burua galduta ez aurkitzeko. Eta aisialdirako, bada, lokal egoki bat jarri, dantzaleku bat edo antzeko zerbait, herrian bertan gera daitezen.

Zein da zure kirol proiektua?

Lehenik eta behin Arraun Elkarteko hauteskundeetara aurkeztuko naiz nire zerrendarekin. Arrauna da herri honetako erreferentzia nagusia kirolari dago-kionez, eta hortik hasiko nuke guztia. Dena dela, kirolari denei laguntzeko prest nago. Esaterako, txirringululari apartak ditugu herrian, eta parte-hartzea zozketa bidez aukeratzen diren probetan berentzat lekua ziurtatu nahiko nuke. Donostialdeko talde batek hala egiten badu, oriotarrek zergatik ez?

Arraunari begira, bada, oriotar sentitzen diren guztiei irekiko diet atea. Haienez zerbitzuan egon beharra du Orio Arraunketa Elkartek eta haienez egin behar da lana. Horretarako laguntza emango didan jende profesionala dago nirekin, curriculum aparta dutenak eta, aukeratzen banaute, petrolio-enpresa baten babes ekonomiko izango du gure proiektuak. Bost urterako hitzarmena nahi du enpresa horrek, eta diru ugari ekarriko du.

Orion landu gabeko diamante asko dago, eta horiej landu behar dira. Ez baditugu behar bezala zaintzen, ikatz bihurtuko dira, alferrik galdu. Eta herrian gera daitezen saiatu behar gara, bestela, guke egindako lan hori besteren mesedetan egingo dugu beti.

Aukeratua izanez gero, zein da zure asmoa?

Lana hutsetik egin behar da, oinarri sendoa jarritz. Eta gure lehen lana auditoria bat egitea da, ekonomikoki zer moduz gauden jakiteko. Hortik aurrera etorriko da kirol esparruko lana. Urte batzuk barru, Oriok traineru bat baino gehiago izan dezan puntan, Pasaiak bezala.



KARKARA

“Egun batean, trikitixa eskola sortu eta talde batean jo nahiko nuke”

Ander Beldarrain Tapia

Trikitilaria eta panderojolea

Trikitixaren plazan jaio zen Ander, Andatzan, eta gaztetatik hasi zen panderoa eta soinua jotzen. Gaur, berriz, gaztearen entseguak entzuteko aukera dago Orioko Eusko Gudari kalean.

PAT COWIE

Gazte-gaztetik hasi zinen jotzen.

Amak animatu ninduen panderoa jotzera 4 urte nituela. Urtebetera sartu nintzen Kristina Solanoren eskolan, Villabonan. Bederatzi urterekin soinuarekin hasi nintzen. Pare bat urtera txapelketetan eta erromerietan Edurne Errandonea trikitilariarekin aritzen nintzen, eta Aristerrazun jantzi genuen aurreneko txapela 2006an. Hamalau urterekin hasi nintzen soinua jotzen jendaurrean Eider Iraola pandero jotzailearekin.

Erromeria gustatzen zaizu?

Solanoren ikasleok guretzat garrantzitsua zen jaialdi bat genuen Aristerrazun, urtero. Andatzan bizi nintzenez, igandero egiten nuen dantza. Andatzako erromeriak xarma berezia dute, astero bertakoak biltzen dituen erromeria asko ez baitago. Baina Oriora bizitzera etorri ondoren, gutxitan bueltatu naiz.

Zeini zor diozu lortutakoa?

Batetik, Kristina Solanori egindako lan bikainagatik. Bestetik, familiakoek laguntza handia ematen didate, eta txapelketetara joaten direnean gehiago

animatzen naiz. Bestalde, Eider eta bion konplizitatea nabaritzen da oholtzetara igotzen garenean. Sariak irabazteak ere laguntzen dit.

“Aldian behin, parranda pixka bat ere egiten dut, baina ahotsa zaindu behar izaten dut, urratu egiten zait-eta bestela”

“Batean eta bestean, hainbeste txapelketa izaten dira: batekin bukatu orduko hasten naizela hurrengoarekin pentsatzen”

Sari asko jaso dituzu, ezta?

Hainbeste txapelketa izaten dira: batekin bukatu orduko hasten naizela hurrengoarekin pentsatzen eta, iaz arte, panderoarekin zein soinuarekin lehiaztzen nintzen, biekin, askotan egun berean. Aurten, ondo ari naiz soinuarekin: txapela eraman dut Oialumen eta Zubietan; bigarren izan naiz Bizkaian izandako Euskadiko Txapelketan, Getarian, Marttitten eta Arroan, eta irailaren 7an Zarautzen ere irabazi genuen.

Bigarren izatea gogorra al da?

Amorrua ematen du puntu batetik edo bigatik galtzeak. Zarautzen beti Etxalarako ahizpek irabazten zuten, baina egun hartan oso ondo jo nuen nik. Bazen garaia! Bigarren izatea ez da txarra, baina ederra izan zen hori, aurrera segitzeko bultzada bat. Letra propio egin ziguten Zarautzi buruz eta jendeak eskertu zuen. Orain dela 2 urte Zaldibarko txapelketarako Unai Manterolak egin zigun bertso sorta polita. Ondo etortzen dira halako aldaketak, bestela aspergarria egiten zait beti gauza berbera kantatzea.

Zenbat ematen diozu trikitixari?

Saiatzen naiz egunero 30-40-50 minutu ematen soinuari eta, hartzen ez badut, falta sumatzen dut. Azkenean, menpekotasuna bada! Baina joan den asteburuan, esaterako, Gazte Festa genuen Orion eta nik txapelketa igandean. Parranda pixka bat egiten dut, baina ahotsa zaindu behar izaten dut, urratu egiten zait-eta bestela.

Eta etorkizuna?

Publikoaren aurrean hartzen ari naiz eskarmentua: leku askotatik deitzen digute, bazkaria edo dela, eta aurten jo dugu Aristerrazun, Arkaitzen eta Loretxun, jakina! Ikus-entzunezko ikasketak egin nahi ditut, baina lortu nahiko nukeena da nik sortutako eskola izatea eta talde batean jotzea. Baina ez dago presarik.



Gitarra lagun, ohiko estiloa erakutsiko du Mikel Markezek lan berrian ere. ANDER GILLENEA

Urriaren 6an kaleratuko du Mikel Markezek disko berria

Elkar etxearekin argitaratuko du *Hiri hartan izan zen* azken lana eta 11 kantu jaso ditu guztira; beste hainbat musikari eta kantari izan ditu lagun lana biribiltzeko garaian.

Londresen izan berri da joan den aste bukaeran Mikel Markez abeslaria, eta han aurkeztu du disko berriko hainbat kantu. Diskoa, ordea, urriaren 6an kaleratuko du. *Hiri hartan izan zen* izenburuko lana *azken urteotan egindako kantuen laburpena* dela esan du Markezek. *Estilo eta estetikari dagokionez, ez da asko urruntzen orain arte egin dudanetik.*

Guztira 11 kantu ditu aurtengo udan, Elkar estudioan, Jean Phocasen ardura-pean egindako diskoak.

Bertsoak eta poemak

Mikel Markezek berak idatzitako letrak musikatzeaz gain, beste hainbat testuri ere jarri die musika. Jokin Sorozabalen *Olentzero business center* sortari, Pedro Mari Otañoren bertso zaharrei eta Jon Martinen beste sorta bati. Poemak, berriz, Beñat Sarasola, Mario Benedetti, Pako Aristi eta Manuel Rivas galiziarrenak dira. *Bitxikeria bezala, esan neza-ke, Silvio Rodriguezen kantu baten euskarazko bertsoa ere sartu dudala.*

Musikariei dagokienez, *diskoaren bizkarrezurra* Pello Ramirezekin –biolontxelo eta akordeioia– eta Arkaitz Mineurrekin –biolina, mandolina eta gitarrasatu du, eta hori uztartu du bere ahots eta gitarrarekin. *Zuzenean eren nirekin dabilta musikariok*, dio Mikel Markezek. Horiez gain, laguntzaile izan ditu beste hainbat musikari: Iñaki Salvador pianoarekin, Eduardo Baranzano gitarrarekin eta Jean Phocas baxuarekin.

Bestalde, kantuan, diskoari izena ematen dion *Hiri hartan izan zen* abestia Uxue Alberdi bertsolaria eta Eñaut Uriarte Ken 7 taldeko abeslaria izan ditu kantu lagun. *Doinu tradizionala da, eskozian bildutakoa eta nik jarri dizkiot hitzak.* Beste kantu batzuetan, Erramun Martikorena eta Eneritz Aulestia Zarauzko neska gaztea izan ditu lagun.

Londresen egin du Markezek lan berriko kantuen lehen emanaldia eta kaleratu ondorenerako kontzertuak oraindik lotzeko dituen arren, izango da hemen ere zuzenean entzuteko aukerarik.

LABUR

Festak

Musa eta erromeria Laurgainen
San Migel festetan hainbat ospakizun egin ondoren, astebururako beste hainbat izango dira aukeran. Irailaren 29an afaria egingo dute, eta Izer eta Alabier izango dira afalostean. Urriaren 1ean, larunbatarekin, mustxapelketa izango da. Arratsaldeko lauretan izena eman behar ko da eta 16:30ean hasiko dira jokoan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu behar ko ditu. Gaue-rako, berriz, erromeria antolatu dute, eta Ostolaza eta Andonegi trikitilariak arituko dira.

Pilota

Paleta eskolak neskentzat

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, *Emakumea Pilotari* egitasmoaren barruan, paleta eskolak jarriko ditu abian, Aian, 9 eta 16 urte bitarteko neskentzat. Urritik ekainera bitartean, astean behin, entrenamendua egingo dute, ostiraletan, 16:30etik 18:00etara, herriko pilotalekuan. Bestalde, Gipuzkoako eskolarteko paleta txapelketan parte hartzeko aukera ere izango dute neskek. Entrenamendu saioak urriaren 7an hasiko dituzte eta Patri Espi-

Katxalotea

Nor bere herriko pasadizo bitxiak kontatzea ez da bekatu izango, noski. Pasa berri dugun aurtengo abuztuaren azken aldera itsasoak egundoko arraina ekarri zigun Zarauzko hondartzara. Handia, ia beltza, eta itsusia.

Dozena bat metro luzean. Hogeita bost mila kilo zela esan zuten irrati eta telebistakoek.

Baina, nik ez nien sinetsi hori! Orain dela berrogeita hemeretzi urte ere, ekarri zuten Zarauzko urek horrelako arrain handia. Nire ustez, dezente handiagoa. Eta hark, hogeita bost mila kilo pisatu omen zituen, Hernaniko gantza fabrikara eraman zutenean, zatika-zatika kamioian.

Hura ere, katxalotea edo omen zen, oraingoa bezalaxe.

Nik ia hamabi urte nituen. Kiratsa botatzen zuen herri aldera. Izan ere, hiru edo lau egunean egon baitzen. Ez zuten ez, nahi baino lehen ezkutatu Hernani aldera.

Baina hura askoz handiagoa ikusten zen, Munoa gainetik begiratuta. Orduan, ulertzen ez dudana da, oraingoa itxuraz txikiagoa eta, nolatan lehengoa

Hango kafetegietakoek eta ostalariek udako egunik onenetakoa egin omen zuten. Denentzako feria txarrik ez

adina pisu? Dena dela, azaldu zen egun berean ezkutatu zuten behintzat. Baina, lastima!

Egunaren buruan milaka lagun egon ginen begira eta zain, noiz jasoko ote zuten gure katxalotea. Eta gau berean, ia inor ez geundenean, grua handiren batekin jaso izango zuten, eta eraman Usurbilera edo... han lurperatzeko.

Ez dut uste gurutzerik tente jarri ziotenik. Enterruko otoitzik inork egin ote zion? Nahiko lan. Han ez zen izango apaizik eta fraiderik. Bada, nioena. Izugarrizko jendetza egon ginen egun hartan, hondartza izkinan eta malekoian.

Batzuk behean eta besteak goian. Hango kafetegietakoek eta ostalariek udako egunik onenetakoa egin omen zuten. Denentzako feria txarrik ez.



Txokoak eta jendea
Zein polita
den uda!

Ez dira urte asko pasa, baina zenbat aldatzen ari diren, ezta? 2005eko udalekuetan ateratako argazkia da. Ezkerretik hasita: Madi, Itziar, Nora, Leire, Garazi, Libe, Udane eta Maddalen. Behean: Martxel, Iñigo, Beñat, Iker, Jon eta Xabi



07. Landa-eskola Arizmendin

Botaleku aldean dago Arizmendi baserria, gaur egungo jabearen aitonak, 1943an, orduko jabeari eresia, izan ere, maizter zegoen orduan baserrian. Baserria ez zuten bizileku bakarrik, ordea, eta fabrika lanean aritzeaz gain, baserriko lanak ere egiten zituzten, eta barazkiak eta esnea saltzera Donostiara joaten ziren. Garai batean sagardoa ere egiten zuten eta oraindik han dute dolarea.

Baserri lanak erabat utziak dituzte gaur egun, senide gehienak kanpora joan zirelako lanera, Michelinera edo itsasora eta, egungo jabeek, ere kanpoan egiten dute lan.

Bizileku, baserri lanetarako gune eta baita eskola ere. Izan ere, Arizmendi baserrian landa-eskola bat ere egon zen. 1948. urtean eraiki zuten, hango aitona Orioko zinegotzi izan zen garaian, inguruko baserrietako haurrek eskolara joateko aukera izan zezaten. Orioko gaitontzeko landa-eskoletako maisu eta maistrek bezala, Arizmendiko eskolan klaseak ematen zituen irakasleak ere baserrian bertan bizi izan ziren, eta orain dela 40-45 urte itxi zen arte han ikasi zuten inguruko neska-mutilek.

Landa-eskolak garrantzitsu ziren Orioko baserritarrentzat. Herritik aldentuta bizi ziren haurren hezkuntza errazten zuten eta baserritarren bizi-moduan kezka bat arindu.

Baserriaren itxurari erreparatuz gero, ikus daiteke hormak harlangaitzez eginak daudela eta izkinetan harlanduzko kateak dituela. Fatxada, ordea, zuritua dago lehenengo eta bigarren solairuan, baita ganbaran ere. Orain dela 15 urte berri zuten baserria, baina oraindik barruko egurrezko egitura mantentzen du. Bestalde, garai bateko arropa garbitzeko harraska, zorroztarria eta dolarea ere ikusgai dauzkate baserrian.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN |

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1, ezk
telef: 943 83 08 12

www.karkara.com

AuPairExcellence
Enara Hehir-Alustiza

- Osoa zeri-eratsia
- Arloa personalizatua
- Euskeraz, gaztelaz eta ingelesez
- Handako egoera duen jantzeria

info@aupairexcellence.com
www.aupairexcellence.com

TV - 0035 306 312 57 40



Bizikleta eta zaldi gainean Santiagora bidean

Donejakue bideko erromesak maiz ikusten dira Orion, baina oriotarrek ere egiten dute Santiagora arteko bidea. **Zaldi gainean eta bizikletaz** joan dira Jon Ander Maiza eta Jose Inazio Etxezarreta *Katxiña* Oriotik Santiagora, asfaltozko bidetik, Jose Inazio Etxeberria *Lizargate* lagun dutela.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI
ARGAZKIAK: ERROMESEK UTZITA

Konpostelan egon nintzen, lehengo udan erromes; noizbait iritsiko nintzen, joan izan banintz oinez, hala dio Tapia eta Leturiaren kantu batek. Santiagora abiatu ziren eta baita iritsi ere, baina hara arteko bidea ez zuten oinez egin, bizikle-

taz eta zaldiz baizik; Jose Inazio Etxezarreta *Katxiña* bizikleta gainean, Jon Ander Maiza zaldi gainean eta Jose Inazio Etxeberria *Lizargate* zaldiak eramane zuten atoiarekin laguntzaile.

Donejakue Bidea zaldi gainean egin zuela jendeari entzun eta jakin-minez animatu egin zen Jon Ander Maiza. *Ni ibiltzen naiz zaldiz eta Katxiñak eta Lizargatek esan zidaten lagunduko zidatela. Aldez aurretik Leirerekin, neskalagunarekin, autoz joan nintzen eta oharrak hartu genituen bideari buruz.*

Bidearen berri jakitea oso garrantzitsua da eta, horretarako, Jon Anderrek gida bat eman zion *Lizargateri*, nondik nora joan behar zuen jakiteko. Zorte handiz, bidean ez ziren galdu. *Katxiñaren esanetan, galduz gero, bat autoarekin alde batean egongo litzateke, bestea bizikletan beste toki batean, eta hirugarrena zaldiarekin aurrera joanda. Momentu batzuetan banatu egiten ginen Jon Ander eta biok, ni Donejakue Bideko egiaztagiriari zigilua jartzera joaten nintzelako eta Jon Anderrek aurrera egiten zuelako.*

Bidearen berri izan arren, aurretik Donejakue Bidea egindako jendearekin hitz egin, eta hain egun gutxian Oriotik Santiagora zaldiz eta bizikletaz joatea ezinezkoa zela esan zieten denek. Hirukotea, ordea, tematia izan eta zortzi egun eta erdian iritsi ziren. *Jendeak 20 egun inguru behar izaten ditu etapa guztiak egiteko, baina guk zortea izan genuen*, esan digu Jon Ander Maizek.

Bidearen nondik norakoak prestatu zituzten eta berek nola prestatu ziren galdetuta esan digute *Katxiña* bizikletan sarritan ibiltzen dela –8.000 kilometro egin ditu aurtentzen–, beraz, prestatua zegoela, baina Jon Ander gutxiago ibiltzen dela zaldi gainean. *Zaldiekin astean behin ibiltzen naiz eta hara joan aurretik, eraman ditugun hiru zaldiekin ibili naizenez, ezagutzen nituen. Bidean, bitaminak, pentsua, hanturen aurkako botikak... eman zizkien Jose Inaziok. Beti ongi prestatzen zituen zaldiak.* Zaldiek aurrera egiteko eragin beharra dago eta zigorrarekin ematen zieten. *Momentu batzuetan zelari heldu eta ipurdia altxatu behar izaten nuen, dena erreta neukalako eta Jose Inaziok ematen zien zaldiei zigorrarekin eta pedalei batera*, dio Maizek.

Zaldientzatsorua

Ongi zaindu dituzte zaldiak, bai, eta berrek, erromesen aterpetxeetan lo egin beharrean, hoteletan hartu dute atseden. Baina hoteletan zaldientzako tokirik ez eta Lizargatek, autoarekin aurrea hartuta, zaldiek gaua pasatzeko soroak aurkitzen zituen. Baimena eskatu eta baita doan utzi ere. *Egun batean, iluntzea gerturatzen ari zen eta Jon Ander nekatuta zegoen. Soro bat ikusi eta norena zen galdetuta jabea aurkitu, harekin Mercedesean sartu, lekua ikusi eta trukean ezer eskatu gabe utzi ziguten tokia. Harrituta geratu naiz zein borondate ona erakutsi duten ikusita*, kontatu digu Lizargatek. *Bidean, atoiaren barruan, bi zaldi beti jaten joaten ziren eta baserrietan lastoa edo belarra eskatuta eman egiten ziguten.*

Etapak bakoitzean zaldi bakoitza bi aldiz erabiltzen zuen eta Zahori, gogorre-na inoiz hiru aldiz ere bai. Hasieran zaldiek sufritu bazuten ere, laugarren egunetik aurrera ongi joan zirela esan digute. Hiru zaldi zituzten eta beste bien kalterako, hasieran batek ez omen zuen joan nahi izaten, baina gero pixkanaka jarri zuten martxan. *Hemen, batik bat, larre bideetan ibiltzera ohituta daude. Asfaltoan gehienez 30-40 kilometro egiten dituzte eta guk egunean batez beste 90 kilometro egiten genituen*, esan digu Jon Anderrek. Bidaiaren berri izan zuenean horrek harritu zuen, hain zuzen ere, *Lizargate: Asfaltotik egitea, niri hori irudi-*

Aurrez Donejakue bidea egindako jendearekin hitz egin eta hain egun gutxian Oriotik Santiagora zaldiz eta bizikletaz joatea ezinezkoa zela esan zieten denek

“Zaldiekin astean behin ibiltzen naiz eta hara joan aurretik, eraman ditugun hiru zaldiekin ibili naizenez ezagutzen nituen. Bidean, berriz, *Lizargatek* ongi prestatzen zituen zaldiak”

—JON ANDER MAIZA

“Harrituta geratu naiz jendeak zein borondate erakutsi duen ikusita. Bidean, atoiaren barruan, bi zaldi beti jaten joaten ziren eta baserrietan lastoa edo belarra eskatuta eman egiten ziguten”

—JOSE I. ETXEBERRIA

“Zaldiak, hemen, batik bat larre bideetan ibiltzera ohituta daude. Asfaltoan gehienez 30-40 kilometro egiten dituzte eta guk egunean batez beste 90 kilometro egiten genituen”

—JON ANDER MAIZA

“Ribadesellara iritsita, ipurdia gorri-gorri egina zeukan Jon Anderrek. Hotelean burko bat erosi eta sokekin lotu genion zaldiaren zelari, horrela, gainean, goxoago joan zedin”

—JOSE I. ETXEZARRETA MAIZA

Zahori, Bayo eta Sole zaldiei perrak kendu zizkieten iritsitakoan. Ondoren, perrak bedeinkatzeko katedralera eraman eta oroitzapen modura gorde du bakoitzak bana

*tu zitzaidan gogorra. Hori esan zidatenean galdera egin nuen: Eta Bilbon? Bizkaia zubitik –esekitako zubitik– pasa ziren Bilbon, eta beste zenbait hiritan zaldiari heldu eta oinez egin behar izan zuten hiri zeharkatu arteko bidea. Zaldi batekin pasa zituzten oinez pasa beharreko hiri edo herriak eta *Katxiñak* kontatu digunez, beti kaka egiten zutela erdi-erdian. *Bizikletatik jaitsi eta plastiko batekin jaso behar izaten nuen gorotza eta zakarrontzira bota, bestela 500 euroko isuna jasotzeko arriskua geneukalako.**

Egun gutxi, kontu ugari

Zortzi egun eta erdi, 789 kilometro –egunean 90 kilometro pasatxo–. Oriotik abiatu eta Zamudiora –Bizkaia– artekoa izan zen lehen etapa eta, hortik aurrera, Colindres –Kantabria–, Cobreces –Kantabria–, Ribadesella –Asturias–, Sograndio –Asturias–, Santiago –Asturias–, Xudan –Lugo–, Palas de Rey Malida –Lugo– eta Santiago –Coruña– izan zituzten, hurrenez hurren, etapa bakoitzeko helmuga. Hori da hitz gutxitan egin duten ibilbidea eta, egun gutxi izan diren arren, bidean kontu ugari bizi izan dituzte; kontatzeko modukoak, batzuk baino ez.

Bidean izan dute aurkaririk: eruria, kamioiak... izan ere, toki batzuetan bazterbidea ona izan arren, beste batzuetan estua zenez, zaldiek izualdi bat edo beste hartu zuten. Eguraldiak gelditu ditu edo abiadura motelduarazi zien une batzuetan eta gelditu zituen besterik ere izan zen: *Goardia zibilek geratu gintuzten Torrelavegako irteeran. Paper guztiak ikusi eta, dena behar bezala geneukanez, aurrera jarraitzen utzi behar izan ziguten. Gainontzean udaltzainek eta ez ziguten ezer esan, egunen batean espaloitik ezin ginela joan esan ziguten, baina hori salbuespena izan zen*, kontatu digute.

Nekea ere izan dute etsai eta horri aurre egiteko irtenbide bila hasita nola edo halako erremedioak aurkitu zituzten. *Ribadesellara iritsita, ipurdia gorri-gorri egina zeukan Jon Anderrek eta min hori arindu beharra geneukan bidean aurrera egingo bazuen. Hotelean burko bat erosi –20 euro kobratu ziguten– eta sokekin lotu genion zelari, horrela, goxoago joan zen*, kontatu du *Katxiñak*.

Bizikletaren gurrpil batean izan zuen *Katxiñak* zulatua eta gurrpil-azala eta ganbera puskatu zitzaizkion; nolabait konpondu eta hurrengo egunean jarri zion berria.

Bueltan askok ez die sinetsi Donejakue Bidea modu horretan eta hain denbora tarte laburrean egin dutenik, baina bidean ere izan zen zalantza erakutsi zuenik, baita egindakoaz damutuko zirela esan zienik ere: *Santanderretik atera-*



1.- Hiru erromesak atsedean hartzen. 2.- Jon A. Maiza zaldia perratzen. 3.- Jose I. Etxezarreta *Katxiña* bizikletan. 4.- Jose I. Etxeberria *Lizargate* atoiko zaldia eta bizikleta zaintzen. 5.- Erromesak emazte eta neska lagunarekin Santiagon, bedeinkatutako perrak eskutan.

GOGORRA, BAINA ETSIGABE, TEMATI, AURRERA

Esaerak dio *urrun nahi duenak heldu, ez du behar zaldia lehertu*. Zaldiak txandaka, baina haren gainean zaldun bakarra eta hura izan da lehertu dena. Egunean 10 orduetik gora pasatzen zituen zaldi gainean, goizean 07:00ak aldera irten eta gauera arte. Bazkaltzera ere ez zen gelditzen, mokatutxo bat jan eta aurrera. *Ura edan eta edan egiten nuen. Ez jateak moteltzen ninduen, baina geldituz gero akabo.*

Momentu batzuetan etsitzetik gertu egon zen Jon Ander Maiza, baina beste biek ematen zioten laguntza ikusita ezin haiei hutsik egin. *Une batzuetan trostan joan beharrean mantoago joan nintzen, baina ibilbidea uzterik ez nuen pentsatu. Euria, haize boladak... agoantatu nituen trostan, azkarrago, baina nekea askotan gu baino gehiago zen.*

Zaldi gainean astakerietan ari zirela esan zienik izan zen bidean, eta bai zaldiek zein zaldunak, sumatu dituzte bai ondorioak. Zaldietariko bat apatxak minduta itzuli da eta atsedean hartzen ari da oraindik. Jon Anderrek ere izan du minik: *Dena erreta izan dut, ipurdiko eta belaunetako mina, oinetako behatzak loak hartuta ia hilabetean... Hainbeste ordu zaldi gainean, zaldian ibiltzeko galtza berezirik gabe, bakeroekin edo txandarekin, gehiegizkoa izan zen. Zelaren estribuko zingilak kanpotik jarri genituen, bidean batek barrutik jartzea gomendatu zigunera arte.*

tzera gindoazela emakume batek esan zidan egindakoaz damutu egingo nintzela eta Santiagora iritsitakoan bazela katedraleko atean harri handi bat eta buruarekin emateko, gehiago ez nuela egin behar jakiteko. Baina hara iritsi eta nire burua lurrera botatzea baino beste gauzarik ez zitzaidan bururatu, erabat nekatuta nengoen, gogoratu du Jon Anderrek.

Perrak bedeinkatu

Iritsi ziren bai Santiagora eta *Katxiña* eta *Lizargate* emazteak eta Jon Anderrek neskalaguna zituzten zain. *Nik banekien iristen ginenerako zain izango zirela Santiagon. Santiago Egunean nik beste bide bat hartu, emakumeekin elkartu eta Jon Ander eta Jose Inazioren zain egon ginen Obradoiro plazan, esan digu *Lizargate*k. *Katxiña*k aitortu digu haiek ikusita malkoak ere atera zitzaizkiola.*

Arropa eta osagairik egokienak ez zituen eraman: *Zirazko galtzekin arriskua neukan eta baita irristatu eta jaustekoa ere, beraz, galtza bakero edo txandal bustiekin aurrera egiten nuen. Berriz joatekoan bakeroen orde zaldian ibiltzeko galtza elastiko bereziekin joango nintzateke eta eserlekua ere karrereta koaren orde z erosoa goa eramango nuke.*

Argi dauka Jon Anderrek horrela ez lukeela berriz Donejakue bidea egingo, baina lortu du eta laguntzaileek emandako indarraz gain, besterik ere jaso du: *Ama lurra eman zidan indarra, sentitu nuen haren indarra; zaldiaren hanketatik nire hanketara korriente elektriko moduko batzuk sentitu nituen eta sentsazio hori ez zait sekula ere ahaztuko.*

Ez du bidaia inoiz ere ahaztuko eta Oriotik Santiagora arteko bidea egitea gomendatuko lioke beste norbaiti ere: *Zaldiz joateko esango nioke, baina beste erritmo batean, bestela ez luke gozatuko. Egunean 40 kilometro egitea gomendatzen dute, lasai joanez, atsedean hartuz... Guk ez geneukan denborarik, gainera, banekien zaldi bakarrarekin aspertu egingo nintzela. Ibili eta gehiagorako gogoz geldituko nintzen eta zaldiak ezingo luke eta hiru eraman eta sufritu arren amaitu dugu.*

Zaldirik onenak ere eztena behar omen du; baina, bidea gogorra izan arren, ez du eztenik beharko Jon Ander Maizak zaldi gainean gozatzeko.

Ukuilua eta etxe bat hartuak zituzten Santiagora iristen zirenerako eta, bide gutzia eginda, lasai hartu zuten atsedean. Berek atsedean hartu eta Zahori, Bayo eta Sole zaldiei ere perrak kendu zizkieten. Ondoren, perrak bedeinkatzeko katedralera eraman eta oroigarri modura gorde du bakoitzak bana.

Perra esku artean eta oroitzapenak barruan gordeta itzuli ziren etxera: *Jose Inaziok ez du autoarekin istripurik izan, ni -Katxiña- ez naiz bizikletatik erori eta Jon Ander ere, pixka bat balantzaka ibili arren, ez da zalditik erori. Zerbait gertatuz gero ere atoian bizikleta eta hirugarren zaldia sartzeko tokirik ez zegoen. Pentsa, itzultzeko, egur bat kendu eta sartu genituen latan bezala hirurak.*

Berriz ez dira Santiagora modu horretan joango, baina zaldi eta bizikletagaitan ibiltzeko gogo zeinek kendu!

Egokitza-pena

Egokitza-pena hitzak zer du berekin? Zer du amaieran? PENA. Bi zentzutako pena; batetik negarra, tristura, etsi-pena... Bestetik, inor inora egokitzeko prozesua bera. Denbora horren iraupena.

Guraso berrion ahotan dabil bologolo egokitza-pena –oriotarrez *adaptaziya*–. Gure haurrek pixkanaka hasi behar omen dute ikastolara egokitzen. Kolpeko kolperik ez! Perfume onak bezala, muturrekoak, baina frasko txikian. Hasieran ordubete, gero ordu eta erdi, orain hiru ordu... Gelako argazkia: haurrak jolasean, gurasoak begira paretaren kontra eta irakasleak zezen plazaren erdian. Iritsi da haurrak gelan bakarrik uzteko momentua. Gelan haurrak negarez eta pasilloan gurasoak. Belarria gelako atean jarrita: *Zuena da? Hala gurea da?* Gurasoak, irakasleak eta ikasleak, denak egokitu behar. Oporretara errez egokitzen gara. Gero datoz penak. Egokitza-penak.

Iraila azterketen hila da. Orion ere bai. Azken hogeit urteotan lehen osteguneko gaingidu dugu baina aurten *suspensio*. Bakarra balitz! Ligako esamin gehienetan huts egin dugu. Orain egokitza-pena. Bigarren mailara egokitzeko pena. Txistea: *Hobe segundan primeran ibili, ta ez primeran segundan*. Ibiliko al

Ba nik uste dut kirolaren bertuterik handiena batuketa dela. Arraunak batu egiten gaitu. Plaza berean eta ordu berean elkartu. Bildu, HB, Orain, EAJ, PSOE... bandera bera astintzen

gara! Herria inoiz baino lasaiago ikusten dut. Lasaiegi. Bai denboraldian zehar eta baita ostean ere.

Arraun elkartetik haize berriak datoz. Zuzendaritza taldeak ez du jarraituko eta talde berriren bat edo beste sortzen ari den zurrumuruak etengabeak

dira. Zatiketa baten aurrean al gaude? Ba nik uste dut kirolaren bertuterik handiena batuketa dela. Arraunak batu egiten gaitu. Plaza berean eta ordu berean elkartu. Bildu, HB, Orain, EAJ, PSOE... bandera bera astintzen.

Nago errioren beste aldeko eraikin hori karamelu goxoezia ez ote den arraunaren izenean aginte makila nahi dutenentzat.

Aginte makila maiatzean aukeratu zuen herriak. Orain denok batera arraun egiteko garaia da. Batzeko garaia. Ez zaitzeko. Saski bakoitzeko sagarrik onenekin egingo nuke sagardoa. Lehengoeekin eta oraingoekin. Egokitu gaitzen. Alperrik dira geroko penak

Automóviles ZARAUTZ
 OREN A-RISERDUPILA
 WWW.ZARAUTZ.COM
 ZARAUTZ. TEL. 943 13 13 50

edukitlogia
ANTILLA
jatetxea
 Muzikari Kalerak - Tel. 943 86 29 00

URAITZ
burdindegia
 Euzkadi - Tel. 943 83 15 97

URANGA
burdindegia
 Opatu, menaje eta erremiantak
 fer.uranga@euskalnet.net
 Telefon: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

PERTSIANAK
 A K O M A Z
 Aluminio, PVC
 Ventanarak
 Matorrak...
 Tel. 943 13 25 61 Muzikotza 600 70 57 27

Kiroladenda - Ume arropa
argine
 www.nisonet.com/argine
 Tel. 943 13 48 89
 25ka DESKONTUA FAMILIA
 UGARIEN TXARTELAREKIN

TALER MEKANIKO A
MANTEROLA S/L
 TOLDOKAK BARBUAK
 AENOR
 AENOR
 193 000
 Esterako balbula
 AENOR kalitate ziurtatutakoa

Santiago ezkoa - 18 postakutxa
 Tel. 943 830 743
 Fax. 943 134 634
 E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
 70 B10 ORIO - GIPUZKO A

ODITZ
 Oritartokoak
 Plater kombinatuak
 Etzeko janaria
 Pintxoak
 943 13 13 12
 AIZ

estilo berria
 Oritartokoak
 Plater kombinatuak
 Etzeko janaria
 Pintxoak
 943 13 13 12
 AIZ

sinergia *investigacion fisioterapia*
 FISIOTERAPIA, Garbaki Arloag, eta Nafola Muntzen
 METODOLOGIA, Garbaki Arloag
 ibni ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Baietz laurehun!

Gurruk hala eskatuta, zertxobait idaztera ausartu naiz. Baina, egia esan, ez dakit ziur zertaz aritu. Gauzak era *motxean* esatera jarria naiz azken boladan. Badira jadanik bost urte eta orain laurehun hitzeko idatzi bat egin beharrak kikildu egiten nau. Batek baino gehiagok pentsatuko du hori ezinezkoa dela, baina benetan diotsuet: *akojonata* nago.

Barne grinak eraginda, indar kontrolagaitza neureganatzen den aldiro, ordenagailu aurrean eseri eta *tiki-taka, tiki-taka* aritzen naiz eta, konturatzen naizenerako, amaitu egiten da. Bai, halaxe izaten da! Baina oraingo hau guztiz bestelakoa da. Aurrez pentsatu behar dut zertaz idatzi, nola hasi, nola bukatu. Eta garrantzitsuena, nire hau inork irakurtzen badu bederen, ea bere barruan zerbait *piztea* lortzen dudan! Bueno, erabaki dut. Horixe izango da nire helburua. Ea, bada, zertaz arituko naiz? Besteek zertaz idazten dute KARKARAN? Badakit! Azken KARKARA begiratuko

Barne grinak eraginda, indar kontrolagaitza neureganatzen den aldiro, ordenagailu aurrean eseri eta tiki-taka, tiki-taka aritzen naiz eta konturatzen naizenerako amaitu egiten da. Bai, halaxe izaten da! Baina oraingo hau guztiz bestelakoa da. Aurrez pentsatu behar dut zertaz idatzi, nola hasi, nola bukatu. Eta garrantzitsuena, nire hau inork irakurtzen badu bederen, ea bere barruan zerbait piztea lortzen dudan!

dut! Baina gure etxera ez denez iritsi! Interneteko bertsioari ekin beharko diot.

Hara! Alferrik da, berriz ere ama-sena martxan jarri zait! *Talde bat ez da kirola soilik* izenburupean gure alabaren saskibaloit taldea agertzen dela konturatu naiz. Bai, arrazoi, nik ere lehenbizi argazkiei begiratzen diet eta gero letrei: *urrea baino askoz ere preziatuagoak* direla dio gure entrenatzaileak. Eta horrela bukatzen du *Talde bezala beste guztiak horrelakoak balira...* Ez al da mundiala, eguneroko martxa petral honetan sartu garen une honetantxe, norbaitek hitz ederrak esatea?

Aldizkarian aurrerago egin eta uda honetako tristura iluna dakusat... *Zaila eta gogorra*. Iñigo Txabolaren aurpegia... Ez dut horretarako gogorik. Iluntasunetik argira pasa beharra dago!

Beraz, argi bila hasita, zein izenburu ipiniko diot honi? Nola amaituko dut? Hau idaztean, zer da lortu nahi dudana edo zer gustatuko litzaidake niri?

Hainbat aukera ditut:
Adibidez;

Gustatuko litzaidake Orion dudan *fan baka* horrek bide erdian geratuz esango balit *arrazoi guztia duzu esaten duzunarekin* edo *ez dizut tutik ere ulertu*. Biak ala biak irakurri nauen seinale, ezta?

Bestalde gustatuko litzaidake bi horietako esaldi bat edo besteren bat zuk esango bazenit. Baina kontuz, agian pentsatuko duzu *Nor da zu hori?* Egizu txanda-pasa. Nire zu ez baitzara zu...

Txanda-pasa egin ez baduzu, badakizu non aurki nazakezun eta beti bezala berriketarako prest nauzula ere badakizunez, nahi duzunean eta nahi duzun tokian gera gaitzke aspaldi hartu ez dugun kafe horren aitzakian herria goitik behera arakatu eta arazo guztien konponbidea *password*aren bidez gauzatzeko, bale?

Beraz, konturatu naizenerako *baietz laurehun...*

Ondo pasa eta hurregora arte!

Eman edaten kazetariari!

Ezkerretara begiratu, testua irakurri, eta poza ematen du kazetari lana, edo KARKARAN egiten den lana gutxienean baloratzen duenik badagoela ikusteak.

Objektibotasuna eskatzen zaigu kazetariari, neutral izatea, eta horretan saiatzen gara behin eta berriz. Bartzuen ustez ezin dugu iritzirik eman, nahiz eta iritzien atalean izan, baina hori artifiziala litzateke. Pertsonak gara eta iritzia ditugu.

KARKARAN nabilen denboran, ni neroni behintzat inpartziala izan naizelakoan nago—kontrakorik uste duenak esan diezadala—albisteak idatzi ditudanean. Guztiei beren lekua ematen saiatzen gara, eta ez ditugu batzuk eta besteak ezberdin tratatzen.

Baina inpartzialak izateko, iturri guztietatik edan behar du kazetariak. Batzuetan, egarri falta izan dezake, baina izan ziur, nik beti dudala informazio egarria.

Horregatik, lerro hauen bidez iturri guztiei beren giltzak ireki eta emari zabalak izateko eskatu nahi diet. Informazio gardena behar du kazetariak, eta ez norbere interesen arabera zabaltzen dena.

Arraun elkarrekin beti lagundu du horretan KARKARA, nahiz eta azken batzarrean ateak itxi. Ea aurrerantzean ez den errepikatzen.

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:
-Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua

Kopak, ban giro aparta...

KOLON TXIKI

Kafetegia

Herriko Eparantzta, 4
ORJO
Tel. 943 83 00 44

kutixi
kafetegia
GOSARI-GOIOAK

Arlan 5, 20013 Oriko
Tel. 943 13 11 17

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 21
Tel. 943 83 09 84 Fax: 943 83 09 85

2GURPIL

Bopozte 2 - 3 - 20015 Oriko (Gipuzkoa)

943 833 888 www.2gupil.com

BARREZIA
PATXI OLIDEN
BARREZIA

Hemengo haragia.
Ezko produktuek: tripak, odaki,
bakarra, beazra, krokatak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

tailer mekanikoa

AUTO-LAN C. B.

irtutira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORJO 943 83 00 34

Carmen eta Txomin
ARRANDEKAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORJO
943 83 35 75

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Dorronsoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestuak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta logitarako **mundialak**

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

Gabon
TABERNA

plater konbinatuak
pintxoak

Tfnor: 943.83.06.09

Igo zaitoz haize berrietara!

Galerria

943890416 - 677149934
galerria.orioko@hotmail.com

Gaia emanda

Arraun herrikoia ala profesionala?

Eztabaida sortu nahian dabilta arraunzale batzuk arraunak azken aldian hartu duen bidearen inguruan; guk, gaia interesgarri irudituta, hona ekarri nahi izan dugu.

Kantera ala kartera, zer nahi dugu?

Arraun denboraldia amaierara iritsi zaigunean, gaur egungo arraun elkarteek darabiltzaten bi gestio ereduak nakarte txoko honetara. Klean kantera eta kartera hitzak dira gehien erabiliak bi ereduok aipatzeko. Lehena gazteekin harrobiko lanean oinarritzen den bitartean, lehen ereduak klubetan hazitako arraunlarietan inbertitzen dute ahalegin guztia bigarren ereduak.

TKE ligako traineruak hartuko dituzten kontuan estatistikak ematerakoan, gehienok ezagunen ditugunak direlakoan. TKEko fitxen arabera, 6 talde badira bertan harrobian hazitako arraunlarien kopurua %33 inguru edo txikiagoa dute. Beste 6ek, aldiz, %50 eta %80 artean harrobian hazitako jendea dute. Arraunlari propioekin ere antzeko datuak sortzen dira, harrobiko gutxien dituzten klubek arraunlari propio gutxi dituzte, baita ere, kanpotik etorritakoak dira eta. Harrobia lantzen duten kasuan, ordea, probintzia bereko jendea da harrobiko taldeetan arraunean dabilena. Garbi bereizita geratzen da, orduan, zein diren kanterakoak eta zein karterakoak.

Nik aitortu beharra dut beti miretsi izan ditudala harrobia landu duten elkarteak. Herrikoiagoak sentitzen dituzte, parte-hartzaileagoak. Poz ematen dit herriko seme-alabak kamiseta bera jantzi eta denak helburu beragatik eta sentimendu beragatik borrokan ikusteak. Bai heldu, bai zahar. Infantil, kadete, junior eta senior, berdin neska eta muti-

lak. Arraunari eman dakiokkeen laguntzarik handienetakoa delakoan nago arraunlari berriak sortzea. Eta benetan harro sentitzen naiz Gipuzkoako hainbat arraun elkarte daramaten bidearekin.

Garai gogorretan ere, ziurtasun osoa daukat, txikitatik bizi duzun eta hazi zaituen horren alde egiteko indar gehiago izango duzula, ordaintzen zaituenaren aldera egiteko baino. Esan nahi dut, edonondik biltzen direla indarrak benetan maite duzun norbaiti laguntza emateko orduan; baina ordain baten menpe da-

Garai gogorretan ere, ziurtasun osoa daukat, txikitatik bizi duzun eta hazi zaituen horren alde egiteko indar gehiago izango duzula, ordaintzen zaituenaren aldera egiteko baino. Esan nahi dut, edonondik biltzen direla indarrak benetan maite duzun norbaiti laguntza ematerako orduan, baina ordain baten menpe dagoenak, jakinik beste edonork ordainduko diola ere datorren urtean, agian ez duela horrenbeste gogo bilduko

goenak, jakinik beste edonork ordainduko diola ere datorren urtean, agian ez duela horrenbeste gogo bilduko.

Bestaldean, karterako elkarteak gertatzen dira. Talde horiek, beheko kategoriak landu ordez, diru sarrera guztia helduenen kategoriara bideratzen dute eta, gehienetan, mutilen trainerura soilik. Arraunlarientzat soldatak ekartzea dakar berarekin horrek eta kirolaren profesionalizazioa. Emaitzak lortzea, presazko eta premiazko bihurtzen da elkarre horietan. Garaipen gehiagok diru sarrera handiago erakartzen du, berriz ere inbertitzeko arraunlari gehiago edo hobeetan.

Filosofia horrek onurak bezala kalte handiak ditu, nire ustez. Arraunlariak soldata bat irabazten dute eta horrek besteak baldintzatzen ditu. Baina azken urteetan arraunean, lehenagotik beste kirol profesionaletan bezala, irabaztearekin edozer barkatzen da, eta galdutakoan bizkarra eman guttiz. Lehia naturalaz gain beste arazo batzu agertu dira -dopatzea...-. Irabazi ala hil! Sistema horrek berekin arraunlari berririk ez sortzea dakarrelakoan nago. Eta, horretaz aparte, gero eta gehiago dira beren herriaren aurka borrokan aritzen direnak, sentimendu kontrajarriak sortuz beren buruetan.

Orio Arraunketa Elkartean aldaketa etor liteke. Orain bazkideok dugu azken hitza. Kantera edo kartera? Nik erabakia aspaldi hartu nuen eta zuk?

Jon Amenabar

Orio Arraunketa Elkarteko bazkidea

Maidor Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arantzaile 63 · 20810 - Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODIOLOGIA ZENTROA

gizarte
kutxa

Gogoeta gure Gaiaren gainean

Kritika

Etxeko hautsak

Anjel Lertxundi

Alberdania, 2011. 208 orrialde.
Narrazioa

Anjel Lertxundik beste nobela bat plazaratu du: *Etxeko hautsa*. Horren aurreko bere azken lanak, *Es-karmentuaren paperak* izeneko saiakerak, Espainiako Literatur Sari Nazionala izan zuen. Era horretako sari batek zaildu egiten dio idazle bati hurrengo lanari ekitea, langa oso goian jarrita daukalako. Anjelekbaina, ongi gainditu du erronka. Eleberriaren gaia *Gaia* da, Euskal Herriko azken berrogeita piko urteotako *Gaia*, horregatik *etxe*ko eta horregatik *hautsa*. Baina *Gai*az aparte, Lertxundik bestelako kontu batzuk ere ekarri ditu, osagai, liburura: aita-seeen harreman gatazkatsua, Alzheimerren gaitz krudelak dakarren ahanztura, zenbait komunikabidek *Gai*az egin ohi duten erabilera gaitza...

KARKARAK Anjeli egin zion azken elkarrizketan, adierazi zuen berari gogoan iltzatuta geratu zaiola haurtzaroko bere herria, orduko Orio hura. Hori agerian gelditzen da bere lanetan, eta horrek gertutasun aparteko bat ematen digu herri hau ondo ezagutzen dugun bere irakurleoi. Itsasotik gertu dagoen



Alberdaniarekin kaleratu du idazle oriotarrak gogoetarako liburua.

ibai ondoko herri batean kokatu du istorioa, protagonistaren aita Aldape baserrian jaioa da, don Andres da herriko apaiza, *Moxo* eta *Gorriya* agertzen dira, Altxerri kalea...

Xehetasun horiek alde batera, Anjelek harremanen gainean, indarkeriaz, bizitzaz... egiten duen hausnarketa interesgarria da, oso, edonorentzat ere. Eta gogoe-

ta horretarako erabili duen idazkeran, irakurlearen lana errazteko zeregin zailean, beste aurrerapauso bat eman du.

Etxeko hautsa garbitzen ari garen honetan, *Anduren* liburua beste urrats bat da bide horretan; ariketa osasungarria.

[IÑAKI ITURAIN]

Ikasleak idazle
Gratzina Lertxundi

Zuzenean Txurrukara

Orion badira nahi adina obra, herritar guztiok ohartu gara horretaz, obra horiek bat bestearen atzetik etortzen baitira, eta, gainera, horietako batzuk tokiz kanpo daudela iruditzen zaigu. Ez direla behar, edo horiek gabe ere berdin jarraituko genukeela. Hala ere, erabilera handia emango litzaioken obra bat oraindik

bururatu gabe dagoela dirudi.



Autopistako zubiak herriari aportazio positiborik egiten ez

dionez, hori hobetzeko zergatik ez azpian oinezkoentzako zubi bat egin? Horrela, Zarauzko kanpino bidetik datorren jendeak, adibidez, eskailera edo igogailuz igo, ibaia gurutzatu eta zuzenean Orion egoteko aukera izango luke tabernaren batean zerbait hartzen, herriko zubiraino dagoen bide luze hori egin beharrean.

Gainera, horrek herriko ostalaritzan gorakada nabarmena ekarriko luke.

Ibaia gurutzatu eta zuzenean Orion egoteko aukera izango luke jendeak, tabernaren batean zerbait hartzen


GaleBask S.L.
Berrikuntzak
Gremioen arteko koordinazioa

638 610 349
Tel./Fax: 943 134 717
galebask@hotmail.com

www.galebask.com
Kale Nagusia, 2 -bajo
20810 ORIO

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
T/fax: 943 83 51 86
Carroceriasazkue@hotmail.com

» INKESTA

Oporretan herritik kanpora joatea beharrezkoa al da hobeto pasatzeko?

146 erantzun jaso ditu galderak. %41ek baietz uste du, %49k ezetz, %5i bost axola zaio kontua eta %3k ez daki zer esan gai honen inguruan.

**HURRENGO GALDERA****Urriaren 12ko Hispanitatearen egunean jai egitearen aldekoa zara?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 305. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Hernanin dena ez da sagardoa**

Irailaren 17an ezkondu ziren Maialen Murgiondo oriotarra eta Asier Garaiar hermaniarra. San Martin ermitan izan zen elizkizuna eta, handik aterata, Deban izan zuten bazkaria eta ondorengo jai. Eztei-bidaian urrun joan diren arren, ziur itzulitakoan pozik ikusiko dutela beren argazkia hemen. Maialenen koadrilak ere ederki pasa zuen bordan, eta ermita atarian dantza egin ez zutenek gero egin zuten.

» ZORIONAK!

Arraun elkarteari

Arraun elkartea oriotar guztion ahotan ibili da azken asteotan eta guk ere txoko honetara ekarri nahi izan dugu; baina ez betiko gaiarekin bazterrak gehiago nahasteko, baizik eta zorionak emateko aurreko asteo batzar nagusi inportantean elkartu ziren 417 bazkideei.

Bertan egondakoeek kontaktu digutenez, eztabaida zentzuzkoa eta lasaia izan zen, orokorrean, eta azpimarratzeko modukoa iruditu zaigu gutzia euskaraz egin zela, modu naturalean.

Horrelako gai *sensibleak* eztabaidatzeko horrenbeste lagun bildu eta gutzia euskaraz egitea txalotzekoa iruditzen zaigu. Bandera astintzeko modukoa.

LOBETXU JATETXO

Eusko Gudari, 1B - Telf: 943 83 00 07

Ille agardiegia
MARIJO

Noska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

LURDES
ARRAUN ELKARTEA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

MIRANDA

harria, olo, loto, eskafitea...
behar dituen beste lanak...
egunero (6:30-14:00)

Ordaineta bidea: 1 669 42 32 70 - SARATZU

Izarra Bideoa

Eusko Gudari 44 / Ariztaga 15. Urte 943 83 38 81

Etxetresna elektrikoaren zure denda

TIEN 21 Izarra Bideoa TIEN 21

10 HILABETE INTERESIK GABE!



Adineko oriotarren kopurua asko igo da azken urteotan. ARTXIBOA

Carmen Oteizak 100 urte beteko ditu urriaren lean

Oroimenaren kutxa

Carmen Oteiza Enbilek 100 urte beteko ditu urriaren lean. Carmen Madrilen bizi da, baina udan urtero izaten da Orion oporretan, jaioterrian. Aurten ez du etortzerik izan, senarra, bera baino 16 urte gazteagoa, ez zuelako ondo; ez behintzat oporretan joateko moduan. Orain dela hiru urte, 2008ko urrian, biak izan ziren Orioko elizan, Carmenen anaia Jorge Oteiza zenaren jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldian. Jorge ez zen 100 urte betetzera iritsi, 5 urte lehenago hil zen, 95 zituela. Haien anaia

Antonio ere bizi da, 85 urte dituela. Oteizatarren izeba Joakinita Enbil 106 urte izatera iritsi zen. Ematen duenez, enbiltarrena luze bizi den familia da.

Eta oriotarrak? Zenbat bizi dira oriotarrak? Zenbatekoa da oriotarren batez besteko adina? Aurtengo udan Orion hil diren zortzietatik hiru 90 urtetik gorakoak ziren: Anttoni Mugika (93 urte), Maria Errazkin (92) eta Justa Arregi (97). Hirurak emakumezkoak.

Azken 25 urteotan 7 oriotar iritsi dira 100 urte betetzera. Honako hauek –parentesi artean, hil zireneko adina–: Petronila de la Cruz (108), Joakina Enbil (106), Perpetua Loidi (100), Jose Kruz Uranga (100), Frantziska Etxabe

(101), Inazio Manterola (100) eta Ramon Solaberrieta (100). Haien argazki bana dago udaleko bulego bateko paretan. Argazkian herriko alkatea ageri da, bisitan, 100. urtebetetze egunean.

Carmenen urtebetetze festan Lurdes Salsamendi zinegotziak ohiko oroigarria eramango dio Madriler, Udalaren ordezkari. Harekin batera, izango dira bere guraso Jose Antonio eta Asun, Carmenen lagunak, besapean oparia daramatela, herriko produktu ederrekin osatutako paketea: antxoak, atuna, txakolina... Luze bizitzeko. Zorionak, Carmen, urte askoan!

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

■ Leandro Arruda Dobrovlny, Orion, irailaren 2an.

» EZKONDUTAKOAK

■ Nerea Gonzalez Aranzeta eta Lander Fernandez Molina, Orion, irailaren 16an.

■ Ibai Kaperotxipi Peñagari-kano eta Bakartxo Oliden Albeniz, Orion, irailaren 3an.

■ Rosalia Pilar Sadaba Aragues eta Samir Benoumrane, Orion, irailaren 3an.

■ Jose Maria Alguacil Barreneetxea eta Raquel Manuela Maya Villafaina, Orion, abuztuaren 30ean.

■ Miren Mikele Blanco Lakunza eta Pedro Pequenis Carrasco, Orion, abuztuaren 27an.

■ Unai Sanmarful Turrado eta Ainhoa Altuna Diez, Orion, uztailaren 30ean.

■ Myriam Lertxundi Lizarralde eta Urko Sagastibeltza Elosa, Orion, uztailaren 30ean.

» HILDAKOAK

■ Mari Jose Miralles Merketegi, Orion, irailaren 23an, 50 urte.

■ Jose Maria Salsamendi Etxebarria, Orion, irailaren 20an, 53 urte.

.....
 .. Eskela edo ..
 .. urteurrenko ..
 .. gogoangarria ..
 .. KARKARAN jarri nahi ..
 .. baduzu, deitu gure ..
 .. telefonora: ..
 .. **943 83 15 27** ..
 ..

Goizeko
 KAFETEGIA
 ☎ 943 83 28 55
 Ama Lehendakari 53 bidea, ORIO
 Autobus parada ondoan

Tareko bakailaoa daukagu
ITSAS MENDI
 gutxiak
 C/Imaio Guitart, 5 ☎ 943 24 07 74 Orio

ITZALA
 kartelua jokatzen ari zara
 ☎ 943 23 12 59

iñaki argazkiak caperochipi
 ezkontzeka asmorik bai?
 www.ikapero.com/ezkontzak
 659378751
 ikapero@ikapero.com

“Gu ez gara ezer bilatzera joaten, dagoena aurkitzen dugu”

Imanol Manterola

Irakaslea

Amaiurko gazteluaren indusketetan hartzen du parte Imanol Manterolak 2006az geroztik. Lau aldiz izan da bertan, eta hainbat aurkikuntza garrantzitsu egin ditu lankideekin 1522an konkistatu zuten gazteluaren inguruan.

IKER GURRUTXAGA

Aurten laugarrenez izan da Amaiurko indusketa lanetan Aranzadi elkartekoe-kin Imanol. Izatez, arkitektura ikasi badu ere, irakasle lanetan aritzen da oriotar gaztea.

Auzolandegi batean jarduten al duzu?

Ez, gurea ez da auzolandegia. Aranzadi-ko Juantxo Agirrek zuzentzen duen taldean egiten dut lan. Dena den, auzolanaren kontzeptua ondo barruan eramaten dugu, Amaiurko herritarrek horrela funtzionatzen dutelako. Bertan, guztia auzolanean egiten dute, eta hori nabaritzen dugu urtero abuztuaren hasieran pasatzen ditugun hamabost egunetan. Baina ez dira auzolandegi ohikoak.

Nolatan joaten zara bertara?

Lehenengo aldiz joan nintzenez, ikas-

taro batera joan nintzen. UEU eta Aranzadi antolatutako ikastaro baten parte ziren praktikak egitera joan ginen. Euskal Arkeologiari buruzko ikastaroa zen. Hiru kanpaina egin genituen, bata Errioxan Gerra Zibileko gorpuak desho- biratzen asteburu bat, bigarrena Arrasaten, Lezetxikin, beste astebete, eta azkena Amaiurren. Gu izan ginen bertan indusketak egiten lehenak. Han jardun genuen askok, –geologoak, arkitektoak, historialariak...– talde bat osatu genuen, euskaraz lan egiten duena.

Zer bilatzen duzue bertan?

Gu ez gara bilatzera joaten, dagoena aurkitzen dugu. Ezer zehatzik ez dugu jomugan, zer dagoen ikustea baizik. Horrela, Amaiurren adibidez, fase asko aurkitu ditugu. Esaterako, dorre nagusia, barneko harresia eta kanpoko harresia

aurkitu ditugu, Erdi Arokoak, Nafarroako Erresumaren garaikoak. Baina ondorengo faseetako egiturak ere ikusi ditugu, artilleria erabiltzen zuten garaikoak, ziutadela modukoak baitira, ez Erdi Aroko harresiak bezalakoak. Baina nahasketa handia dago Amaiurren.

“Auzolanaren kontzeptua ondo barruan eramaten dugu, Amaiurko herritarrek horrela funtzionatzen dutelako”

“Gauza bereziak agertu dira, eskuz jokatzeko pilota bat, sagarrak biltzeko otar bat, 3 zentimetroko txalupatxo bat... Bertan jendea bizi zela adierazten dutenak”

Udan bakarrik joaten al zarete?

Udan indusketak egiten ditugu, baina urtearen joanean badaude bestelako lanak. Bideak txukundu, sasiak garbitu... gauza asko dago. Baina hor herritarren lana eskertzekoa da, auzolana instituzionalizatuta dago bertan, obligazioa da. **Zein izan da aurkitu duzuen pieza bixiena?**

Pieza horiek ez dira gureak. Ikertzeko aukera dugu, baina Nafarroako Gobernuarenak dira piezak. Txanponak agertzen dira, urtean bizpahiru, zeramika piezak ere bai... Horiek dira akaso garrantzitsuenak, datatzeko egokiak direlako. Danimarkako txanponak ikusi ditut, baita Malmökoak –Suedia– ere eta, aurten, ustez sestertzioa dena. Orduan jatorriak ez zuen axola, balioa metalak zeukan. Kanoi bolak ere agertu izan dira, eta gerra bat egon zela adierazten dute... Aurten uharka bat agertu da, garai haie- tako putzu bat. Eta han gauza bereziak agertu dira, eskuz jokatzeko pilota bat, sagarrak biltzeko otar bat, 3 zentimetroko txalupatxo bat... Horiek denak Amaiurren jendea bizi zela adierazten dute, eta aisialdia ere behar zutela argi uzten dute. Guda 1522an izan zen, baina gerora muga egon zen, arantzelak ko- bratzeko erabiltzen zena. Etorkizunean ea zer gehiago aurkitzen dugun.

Eta aurkitutakoarekin, zer?

Amaiurren nekazalturismoa handia da. Bertakoei eskertza bezala, erakusketa bat egin nahiko genuke aurkitutako gau- zekin. Nafarroako Gobernuak baimena eman zain dago Aranzadi.



Imanol, Amaiurren, zutik kamerarekin, Juantxo Agirre zuzendaria grabatzen. ARANZADI

>> AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Errentan

■ Etxea alokatzeko Orion. Hiru logela ditu. Altzariekin eta beharrezko tresnekin. 750 euro hilean. Tf.: 678 90 61 66 (Arantxa).
■ Etxea alokatzeko Anibarko Portuan. Bi logela ditu eta urte osorako alokairuan eskaintzen da. Tf.: 615 75 76 48.
■ Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke errentan. Tf.: 662 31 13 20 edo 943 13 17 47 (Cristian).

Laneskaera

Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsaldez. Eskarmentua daukat. Interesatuek deitu lasai. Tf.: 679 85 23 41. Neska arduratsuak etxeak garbitu eta edadetuak

zainduko liuzke. Tf.: 600 74 56 86.

■ Neska euskalduna etxeak eta atariak garbitzeko prest. Tf.: 666 03 67 80.
■ Esperientzia duen bertako neska bat eskaintzen da eskola partikularrik emateko. Tf.: 680 45 35 63 (Maialen).

Aurkitutakoak

■ Ume baten txaketa grisa aurkitu nuen irailaren 26an Ibai Ondon. Galduek deitu zenbaki honetara: 943 83 44 98.

Saltzeko

■ Intxaurrak dauzkat saltzeko. Lau kilo 10 eurotan. Tf.: 943 83 44 98..
■ Egongelako gerezizko altzaria salduko nuke. Baita

gaztetxoentzako literadun logelako altzariak ere. Tf.: 678 53 23 04 (Jaione).
■ Garaje itxia salgai Mendibeltz futbol zelaiaren azpian. 20, 67 metro koadro. Tf.: 646 28 99 07 edo 630 37 01 38.

■ Andatza auzoan, erreformatu berri dagoen 138 metro koadroko etxebizitza salgai. 4 logela eta 2 bainugela ditu. 278.500 euro (negoziaerriak). Merezidu ietxebizitza kusteak. Tf.: 620 33 53 98.

Oparitarako

■ Oregon Scientific markako pulstometro baten zinta opari. Karela kiroldegian pulstometroa hartu zuenak, idatzi dezala KARKARA eta emango diot.

>> ITSASOA

Table with 4 columns: EGUNA, ITSASGORA, ITSASBEHERA, ILARGIA. Rows 01 to 14.

>> ZAINTZAKO BOTIKAK

- IRAILA
■ 30ean, Zulaika.
URRIA
■ 1etik 7ra, Lasa.
■ 8an eta 9an, Larrañaga.
■ 10ean, Gallo.
■ 11n, Azaldeg.
■ 12an, Mutiozabal.
■ 13an, Iriarte.
■ 14an, Larrañaga.
■ 15 eta 16an, Mutiozabal.
■ 17an, Azaldeg.
■ 18an, Zulaika.
■ 19an, Iriarte.
■ 20an, Larrañaga.
■ 21ean, Mutiozabal.
Azaldeg: Urdaneta kalea, 8.
Barrenetxea: Gipuzkoa, 17.
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.
Larrañaga: S. Frantzisko, 16.
Lasa: Herriko plaza.
G. Artiano: Zigordia kalea, 17.
Iriarte: Zinkunegi, Pilarxo Enea.
Zulaika: Bizkaia kalea, 41.

>> TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUZ train schedule table with columns for each station and times.

ZARAUZ-DONOSTIA train schedule table with columns for each station and times.

>> AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUZ bus schedule table.

ZARAUZ-DONOSTIA bus schedule table.

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUZ bus schedule table for weekends.

ZARAUZ-DONOSTIA bus schedule table for weekends.

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orrio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Dardozaleak berriz jokoan

Maiatzean Joseba Unanuek Espainiako txapelketan zilarrezko domina lortu ondoren erronka berriak dituzte Unar dardo taldeko jokalariek. Tragoxka tabernan jokatuko dute orain eta enpresa ere aldatu dute. Azaroan hasiko da denboraldi berria eta zaleei gonbita egin nahi diete jokatzeko eta baita taldea sortzeko ere. Interesatuak, informazioa jasotzeko honako telefonora dei dezakete: 943 835 476 edo unar@telefonica.net helbidera idatzi.

Orio

Informatika

- Urriaren 3tik 14ra, Internet eta e-administrazio ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.
- Urriaren 5ean eta 6an, Meta postontzi eta gordailu elektronikokoari buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.
- Urriaren 10ean eta 11n, Openoffice ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.
- Urriaren 4an, IT txartela ateratzeko azterketa, 18:00etan, KZgunean.

Ikastaroak

- Dultzaina, alboka eta txalaparta ikastaroak, haur eta helduentzat, astean behin. Ikastolak antolatuta. Izen-ematea

eta informazioa: 943 83 47 04.

- Urriaren 5etik ekainera bitartean, mandalara ikastaroa. Asteazkenetan, bi astean behin, 15:00etatik 16.30era. Izen-ematea: kultur etxean, 648 487 489 telefonoan edo mandalarataldea@gmail.com helbidean.
- Astearte arratsaldeetan, areto dantza eta dantza latino eskolak Marisa Merino eta Yoanaren eskolaren eskutik. Kultur etxean. Izen-ematea: 687845194.

Futbola

- Urriaren 1ean, Afizionatuen gorengo mailan, Idiazabal-Orio, 17:00etan, Arizkorreta zelaian.
- Urriaren 1ean, Kadeteen ohorezko mailan, Orio-Aloña Mendi, 10:00etan, Mendibeltz zelaian.
- Urriaren 1ean, Jubenilen le-

hen mailan, Orio-Burumendi, 16:30ean, Mendibeltz zelaian.

- Urriaren 1ean, Emakumezkoen senior mailan, Tolosa-Orio, 17:30ean, Usabal zelaian.
- Urriaren 9an, Afizionatuen gorengo mailan, Orio-Zumaia Mendibeltz zelaian.
- Urriaren 9an, Kadeteen ohorezko mailan, Orio-Anaitasuna, Mendibeltz zelaian.
- Urriaren 9an, Jubenilen lehen mailan, Ilintxa-Orio, Legazpiko Bikufia zelaian.
- Urriaren 9an, Emakumezkoen senior maila, Orio-Usturibil Mendibeltz zelaian.

Saskibaloia

- Irailaren 30ean, Senior mutilen Gipuzkoako 2. mailan, Alustiza autobusak Orio-Ordizia, 20:15ean, Karela kiroldegian.
- Urriaren 1ean, Errendimenduko kadete neskek, ZKE Za-

rautz-TAKE Tolosa, 11:00etan, Karela kiroldegian.

- Senior mutilen Gipuzkoako 2. mailan, Hiercor Goierrri-Alustiza autobusak Orio, 16:00etan, Urretxuko Aldiri kiroldegian.

Bingoa

- Urriaren 5ean, bingo saioa, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxeko areto nagusian, Zaharren Babes Lekuak antolatuta.

Bilerak

- Urriaren 7an, Zaragueta eskolako batzarra, 19:00etan, Kultur Etxean.
- Urriaren 13an, sanikolas Festak antolatzeko bilera irekia, 18:30ean, Kultur Etxean.

Aia

Podologia

- Urriaren 15ean. Ordua hartzeko deitu 943131114ra.

Silo-Bolak

- Urriaren 11n, silo-bolen bilketa. Zerbitzuaren inguruko informazioa: Urkome (943 81 65 00) edo hitz egin Igorrekin (660 04 97 51).

